

UDAL-BATZARRA 5/06

UDAL-BATZARRAK, 2006ko UZTAILAREN 17an EGINDAKO EZOHIZKO BILKURARI DAGOKION AKTA

PARTAIDEAK:

ALKATEA:

Fidel Azpiroz Arrillaga

ZINEGOTZIAK:

Jose Ignacio Otermin Garmendia
M^o Carmen Egurza Salaberria
Mikel Zubillaga Galarraga
Kepa De la Iglesia Sánchez
Jesús M^a Arsuaga Lizaso

IDAZKARI AKZIDENTALA:

Garikoitz LEKUONA IZETA

ANOETako Udaletxean, 2006ko uztailaren 17an iluntzeko zortziak eta laurdenak direnean eta aurrez dei egin ondoren, Udal-Batzarra elkartu da, Ezohizko Bilkura egin asmoz Fidel Azpiroz Arrillaga alkate jaunaren mahaiburutzapean eta alboan aipatzen diren Zinegotzi guztiek parte hartzen dutelarik eta Nieves Alarcos Martinez eta Silvia Dos Santos Leite Zinegotziak ez dira etorri eta ez dute arrazoirik adierazi; idazkari akzidentala, Garikoitz Lekuona Izeta jauna.

1.- 2006KO EKAINAREN 1EAN OSPATURIKO AKTAREN ONESPENA

Udalbatzak 2006ko ekainaren 1ean egindako bilkuraren akta irakurri eta aho batez onetsirik geratu da.

Es leida y aprobada por unanimidad de los reunidos el acta de la sesión celebrada con fecha 1 de junio de 2006.

2.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA, 123TIK 199RA, BIAK BARNE.

Fidel Azpiroz Arrillaga Alkate Jaunak egindako ebazpenen berri eman du, alegia, 200tik 245era, biak barne; korporakideek jakituen geratzen direlarik.

El Sr. Alcalde D. Fidel Azpiroz Arrillaga da cuenta de las resoluciones dictadas correspondiente a los números comprendidos entre el 200 al 245, inclusive; dándose la Corporación por enterada.

3.- 2005-2006 IKASTURTEAN ESKOLA KIROLA AURRERA ERAMATEAGATIK IKASTOLARI DIRULAGUNTZA EMATEKO PROPOSAMENA.

Fidel Azpiroz Arrillaga Alkate Jaunak Kultur Dinamizatzaileak 2006ko uztailaren 11ko dataz 2006ko uztailaren 4ko Kultura Batzordeak goian aipatzen den gaiari buruz proposatutakoa jasoz prestatutako diktamina irakurri eta partaideek aho batez onesten dute:

Lehena.- Anoetako Udalak Ikastolari Gipuzkoako Foru Aldundiatik jasotako 2.327 €ko diru laguntza eta Anoetako Udalari ikasle kopuruagatik dagokion 1.991 €ko diru kopurua ematea, hau da, 4.318 €ko diru kopurua guztira. Eta Irurako Udalak 336 € ordaindu beharko dizkio Ikastolari berari dagokion ikasle kopurua dela eta.

El Sr. Alcalde D. Fidel Azpiroz Arrillaga procede a dar lectura del Dictamen de la Dinamizadora Cultural de 11 de julio de 2006, en el cual se recoge la propuesta aprobada por la Comisión de Cultura de 4 de julio de 2006 sobre el punto arriba referenciado y se acuerda por unanimidad de los reunidos:

Primero.- Que el Ayuntamiento de Anoeta otorgue a la Ikastola la subvención de 2.327 € otorgada por la Diputación Foral de Guipúzcoa y la cantidad de 1.991 € que le corresponde al Ayuntamiento de Anoeta en concepto de número de alumnos, es decir, un total de 4.318 €. El Ayuntamiento de Irura deberá pagar a la Ikastola la cantidad de 336 € en concepto de número de alumnos que le corresponden.

4.- **EUSKARAREN UDAL-ORDENANTZA ONARTZEKO PROPOSAMENA.**

Alkate jaunak gaiari buruz Euskara batzordeak 2006ko apirilaren 10eko bileran proposatutakoa jasotzen duen 2006ko uztailaren 5eko Hizkuntza Normalkuntzarako Teknikariaren Diktamina irakurri eta partaideek aho batez onesten dute:

Lehena.- Euskara Batzordeak proposatzen duen ordenantza testu berria onartzea eta indarrean jartzeko

El Sr. Alcalde D. Fidel Azpiroz Arrillaga procede a dar lectura del Dictamen de la Técnico de Normalización Lingüística de 5 de julio de 2006, en el cual se recoge la propuesta aprobada por la Comisión de Euskera de 10 de abril de 2006 sobre el punto arriba referenciado y se acuerda por unanimidad de los reunidos:

Primero.- Aprobar el nuevo texto de ordenanza propuesto por la Comisión de Euskera y realizar los trámites

tramiteak burutzea.

necesarios para su entrada en vigor.

Bigarrena.- Erabaki honen berri ematea Eusko Jaurlaritzako dagokion zuzendariari, Anoetako herritarrei eta udal-langile guztiei.

Segundo.- Dar cuenta de la presente decisión al Gobierno Vasco, a los ciudadanos de Anoeta y a todos los trabajadores municipales.

5.- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN ARAUDI BERRIA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Alkate jaunak gaiari buruz Gizarte Zerbitzuko Batzordeak 2006ko maiatzaren 17ko bileran proposatutakoa jasotzen duen 2006ko maiatzaren 24ko Gizarte Langilearen Diktamina irakurri eta partaideek aho batez onesten dute:

El Sr. Alcalde D. Fidel Azpiroz Arrillaga procede a dar lectura del Dictamen de la Trabajadora Social de 24 de mayo de 2006, en el cual se recoge la propuesta aprobada por la Comisión de Servicios Sociales de 17 de mayo de 2006 sobre el punto arriba referenciado y se acuerda por unanimidad de los reunidos:

Lehena.- Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren Araudi berria onartzea eta indarrean jartzeko tramiteak burutzea.

Primero.- Aprobar la nueva normativa sobre el Servicio de Ayuda Domiciliaria y realizar los trámites necesarios para su entrada en vigor.

6.- AURRERAPENA – ANOETAKO A14, A20, S1 ETA R1 AREEI BURUZKO PLANEAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA PUNTUALA ETA ZUZENKETA.

- a) **AURRERAPENA DOKUMENTUA DELA ETA, AURKEZTUTAKO IRADOKIZUNEN ESTIMAZIOA EDO EZ-ONARTZEA, BERE KASUAN.**
- b) **ANOETAKO A14, A20, S1 ETA R1 AREEI BURUZKO PLANEAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA PUNTUALA ETA ZUZENKETA DOKUMENTUA PRESTATZEKO JARRAITURIKO IRIZPIDEAK, HELBURUAK ETA SOLUZIOAK BERRESTEA.**
- c) **ANOETAKO A14, A20, S1 ETA R1 AREEI BURUZKO PLANEAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA PUNTUALA ETA ZUZENKETA BEHIN BEHINEKO IZAERAZ ONARTZEA.**

Alkate jaunak Jose Ignacio Otermin zinegotziari eman dio hitza eta honek 2000ko abenduaren 5ean onartuak izan ziren Anoetako Plangintzako Arau Subsidiarioen azalpena ematen du, orain esku artean daukagun AURRERAPENArekin lotuz.

Jarraian Anoetako A14, A20, S1 eta R1 Areei buruzko Planeamenduko Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntuala eta Zuzenketa dela eta AURRERAPENA gaiaren inguruan aurkeztu diren 5 iradokizunen berri ematen du, idatziz aurkeztu eta espedientean jasotako iradokizunen azalpena eman eta iradokizun hauen aurrean Udalak hartutako erabakia defendatuz.

Jarraian Anoetako A14, A20, S1 eta R1 Areei buruzko Planeamenduko Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntuala eta Zuzenketa dokumentua prestatzeko jarraituriko irizpideak, helburuak eta soluzioak berresten dira aho batez.

Eta azkenik, Anoetako A14, A20, S1 eta R1 Areei buruzko Planeamenduko Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntuala eta Zuzenketa behin behineko izaeraz onartzea erabakitzen da aho batez.

El Sr. Alcalde cede la palabra al concejal D. Jose Ignacio Otermin y este da una explicación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Anoeta que fueron aprobadas el 5 de diciembre de 2000, contextualizandolas con el AVANCE que tenemos entre manos.

Acto seguido da cuenta de los 5 escritos de sugerencias presentados con motivo del AVANCE de Modificación y Subsanción de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Anoeta referidas a las Áreas A14, A20, S1 y R1, los cuales se encuentran recogidos en el correspondiente expediente, y defiende la posición adoptada por el Ayuntamiento frente a dichos escritos de sugerencias.

Acto seguido se ratifican por unanimidad de los presentes los criterios, objetivos y soluciones seguidas en su día para la preparación de la documentación de la Modificación y Subsanción de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Anoeta referidas a las Áreas A14, A20, S1 y R1.

Y por último, se apueba por unanimidad de los presentes la aprobación inicial de la Modificación y Subsanción de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Anoeta referidas a las Áreas A14, A20, S1 y R1.

7.- **MOZIOA: ALDERDI POLITIKOEI BURUZKO 6/2002 LEGE ORGANIKOAREN AURKA, EUSKAL HERRIAN ESKUBIDE ZIBIL ETA POLITIKOEN ERRESPETUA ALDARRIKATZEA.**

Mikel Zubillaga udal zinegotziak gaiari buruz 2006ko maiatzan Udaletxean aurkeztu zen mozioa irakurri du.

El concejal municipal Mikel Zubillaga procede a dar lectura a la moción presentada sobre el punto arriba referenciado en mayo de 2006.

Udalbatzak mozioa bozkatu eta ondorengo emaitza egon da:

El Ayuntamiento en Pleno vota la moción y se obtiene el siguiente resultado:

- Alde: 0
- Aurka: 0
- Abstentzioa: 6 (aho batez).

- A favor: 0
- En contra: 0
- Abstención: 6 (unaninidad).

Jarraian, zinegotzi berdinak Udal ordezkariak prestatutako testu alternatiboa irakurri eta denek aho batez onartu dute.

Acto seguido el mismo concejal procede a dar lectura al texto alternativo preparado; texto que es aprobado por unanimidad.

8.- MOZIOA: UZTAILAREN 18AN KOLPE FRANKISTAREN 70. URTEURRENA BETEKO DELA ETA, “ALTXAMENDUA” GAITZESTEA.

Kepa De La Iglesia udal zinegotziak gaiari buruz prestatutako mozioa irakurri du.

El concejal municipal Kepa De La Iglesia procede a dar lectura de la moción presentada.

Irakurri ondoren partaideek aho batez onartu dute.

Tras su lectura es aprobado por unanimidad de los reunidos.

Gero, bertaratutako batek hitza eskatzen du ondorengo adierazteko:

A continuación uno de los asistentes a la sesión solicita la palabra para intervenir en la misma:

6. puntuari dagokionez:

Bertaratutako batek dio:

“Lasarbe Eremuan eraiki beharrekoak diren etxebizitza kopuru osotik erdia etxebizitza librea izatea eta beste erdia etxebizitza babestua izateko erabaki politikoa hartu da, zein irizpidearen arabera hartu da erabaki hau?”

Jose Ignacio Oterminек erantzuten dio:

“Batetik, egun babes ofizialeko etxebizitza asko eraikitzen ari direla, bestetik kontutan hartu da bere garaian babes ofizialeko etxebizitzetarako zenbat eskera egon ziren eta azkenik, aztertu da edo kontutan hartu da herrian badagoela jende kopuru bat etxebizitza tasatua eskuratzeko lamen ekonomikoa duena. Irizpide hauek kontutan hartuta beraz hartu da aipatu banaketaren erabakia.”

Bertaratutako batek dio:

“AURRERAPENari dagokion dokumentazioaren barnean zergatik ez da inolako erreferentziarik egiten aurreko Udalak esku artean zuen proiektuari?”

Alkateak erantzuten dio:

“Kontutan hartu zen aurretik onartuta zegoena, hau da, Foru Aldundiak onartutakoa”.

Jose Ignacio Oterminек erantzuten dio:

“Guzti honen helburua ez da Anoetako Plangintzako Arau Subsidiarioak aldatzea, baizik eta soilik berauek onartzeko garaian suspentsioan geratu zen zonaldean beharrezko aldaketak egin eta eskaintzen dituen aukeren azterketa burutzea baizik.”

Bertaratutako batek dio:

“Proiektu hau guztia aurrera eramateko gai Zárate baina ez dakizue erantzuten zenbatean salduko diren Babes Ofizialeko Etxebizitzak?”

Jose Ignacio Oterminек erantzuten dio:

“Ez da momentua, izan ere oraindik falta dira hirigintzako fase gehiago betetzea etxebizitzaren azken prezioen inguruko lehen datuak emateko. Oraindik prozesuaren lehen urratsetan aurkitzen gara, AURRERAPENArekin esku artean eta fase honetan ezin da zuk eskatzen duzun datu hori”.

Bertaratutako batek dio:

“Orduña propagandarako erabiltzen duzue bakarrik babes ofizialeko hainbeste etxebizitza eta tasatuko beste hainbeste etxebizitza eraiki behar duzuela?”

Jose Ignacio Oterminек erantzuten dio:

“Errepikatzen dut datu hau egun ezin dela eman, ezinezkoa dela; tasatuen kasuan berdin. Beharrezko tramiteak eman eta onndoren lurren nagusiekin hitzartu beharko da beraien prezioa, hitzarmen bidez eta hori da bidea. Babes Ofizialeko etxebizitzetarako dagokionez ere, prezioa bere unean finkatuko dago, baina beti legeak ezartzen dituen mugen barnean, babes ofizialeko etxebizitzaren kalifikazioa lortu ondoren”.

Bertaratutako batek dio:

“Nahi dut definitzea etxe huts bat zerden zuentzat?”

Jose Ignacio Oterminen erantzuten dio:

“Etxe huts bat da lizentzia duena eta hutsik dagoena. Ofizialki, eraikitzen ari diren Babes Ofizialeko Etxebizitzak etxebizitza hutsak dira, lizentzia daukatelako eta kalkuloak egiterako orduan legeak ezarritako formulak jarraitu dira. Inork ez du ezer asmatu. Legeak ezarritako irizpideak jarraitu besterik ez dira egin”.

Bertaratutako batek dio:

“Azterketaren arabera 240 etxebizitza eraikitzeke aukera dago eta 204 eraikiko dira bakarrik?”.

Jose Ignacio Oterminen erantzuten dio:

“Azterketaren emaitza, 240, kopuru topea da eta ez da gehiago eraikitzen aukerarik ez dagoelako jarraitzen diren eraikuntza irizpideen arabera, zonalde berdeak etabar direla eta. Beraz, gauza bat da zenbat eraikitzeke aukera dagoen edo beharra dagoen Anoetan eraikitzea eta beste gauza bat da Lasarbe zonaldean zenbat kabitzen diren”.

Bertaratutako batek dio:

“Egungo famili kopurua kalkulaterako orduan egungoa 2,73 kidekoa dela kalkulaten da eta 2015 urteari begira 2,47 kidekoa izatea aurreikusi. Datu hauek zonalde berdeek eskatzen duten datuekin ekoizgarriak azaltzen dira 3tik gorakoa baita lortzen den datua.”.

Jose Ignacio Oterminen erantzuten dio:

“Galdera hau aurreko asteko bileran ere planteatu zenuen eta erantzun nizun ez nintzela galdera tekinko honi erantzuteko gai. Atkitektoarekin kontsultatu dut eta azaldu didanez datu kontrajarri hauek azaltzea posiblea da, izan ere Erico biztanleria kopurua kalkulatzeko orduan edo famili kopurua kalkulatzeko orduan formula legalak erabiltzen dira eta datuak ez dira zehatzak, estimazio bat egiteko besterik ez dute balio, gero errealitatean etorkizunean datuak bestelakoak izan bai daitezke hainbat faktoreen ondorioz. Etorkizuneko herria nolakoa izango den ezin da jakin, egunero aldatzen ari da herria eta formula hauen arabera egungo behrrak aztertzen dira; etorkizuneko beharrak dagokion momentuan egingo diren kalkuluen arabera aztertuko dira”.

Bertaratutako batek dio:

“Zein da eraikiko diren etxebizitzaren eraikuntza perfila?”.

Jose Ignacio Oterminen erantzuten dio:

“Jarri diren topeak hauek dira:
Zonalde batean Bajua + 5 eta Garaje 2 pisu lur azpitik; bezte zonalde batean Bajua + 2 eta Garajeen 2 pisu lur azpitik.
Beste kontu bat da nola geratuko den azken definizioan, baina beti aipatu topeak errespetatuz”.

Bertaratutako batek dio:

“Zergaitik kontsideratzen da Kooperazio sistema Konpentsazio sistema baino egokiagoa dela?”.

Jose Ignazio Oterminen erantzuten dio:

“Kooperazio sistemaren bidez udalak urbanizazioa bultzatuko duelako bai babes ofizialeko etxebizitzaren kasuan eta baita era etxebizitza tasatuaren kasuan. Beraz, prozesuan kontrol gehiago edukiz”.

Bertaratutako batek dio:

“Zein izango dira Babes Ofizialeko Etxebizitzaren zozketan partehartzeko jarriko diren prioritateak?”.

Jose Ignazio Oterminen erantzuten dio:

“Irispideak egun finkatu gabe daude, baina herritarrei preferentzia emateko moduan ezarriko dira”.

Bertaratutako batek dio:

“Lehen iradokizunak aurkezteko 2 hilabeteko epea eman zen eta orain 45 egun naturaleko epea, zergatik?”

Jose Ignazio Oterminen erantzuten dio:

“Aurrekoa lehen fasea zelako, iradokizunak jaso ziren, aztertu eta eztabaidatu eta orain gaia landuago dagoela eta nahikoa kontsideratzen da 45 eguneko epea. Abuztua tartean koinziditzea kasualitatea da. Ez da espreski bilatu den gauza bat”.

Bertaratutako batek dio:

“Kritikatu beharra dago uda garaia erabiltzea tramite hauek aurrera eramateko, oztopoak jartzeko asmoa dagoelaren seinale. Bestetik ez duzue garbi plan hau zertarako eramaten duzuen aurrera eta nora eramango gaituen. Atzetik gaia beste batzuk mugitzen ari direlaren seinale. Aurreko udalaren proiektua besterik gabe bertan behera utzi zenuten”.

Jose Ignazio Oterminen erantzuten dio:

“Proiektua atzera bota zen esplikaziorik gabe bapatean azaldu zelako inolako azalpenik gabe eta inolako azalpenik gabe hainbat ekintza aurrera eramatea eskatzen zuelako. Guk esplikaziorik gabe onartu eta esplikaziorik jasotzen ez duen proiekturik ezin dugu ekimenak aurrera emateko kontutan hartu. Horregatik alde batera utzi, aurretik Diputazioak onartutakoa erreferentziatzen hartu eta behar diren azterketak egin ondoren planteatu dugu proiektu berria.”.

Beste bertaratutako batek dio:

“Zenbait herritarrek aurkeztutako idatzi-eskaera ez da kontutan hartu?”

Alkate jaunak erantzun dio:

“Epez kanpo aurkeztu zen idatzia eta horregatik ez da kontutan hartu”.

7. puntuari dagokionez:

Bertaratutako batek dio:

“Nelson mandelak zioen bezala – Tan culpable es quien la acata, como quien la hace cumplir-”.

Beste batek dio:

“Azkoitiko Udalak frogatu du posiblea dela. Egibarrek ere frogatu zuen posiblea zela Zaldibian, nahiz eta Gipuzkoa Buru Batzarrak ekimena gelditu eta berdin Arabako beste kasu batean. 182.2 artikulua aplikatzea posiblea da eta borondate kontua da”.

8. puntuari dagokionez:

Bertaratutako batek dio:

“Memoria historikoaren errespetu osoarekin, irakurritako idatzian zalatzen duzuen zuek eramaten duzue aurrera orain. Demokrazia ezaren adibide berdina zuen egungo jarrera da”.

Eta beste aztergairik ezean, Alkate Jaunak amaitutzat eman du bilkura, gaueko bederatziak eta berrogei minutu direnean; guzti honetaz, nik Idazkari akzidentalak, fede ematen dudalarik.